

nola den bizitza
kantatzeko gogoan
(gu) pozik gabiltza.

SILABA BIKOAK: izan leikez Adberbioak: aizu, beraz, noski, arren... izenordeak: niri, bera, aiek... erakusleak: ori, orrek... Posesiboak: nire, aren, gure... edo elkarrizketako berbak: gizon, andre mutil...

IRU SILABATIK GORAKOAK: izan leikez Izenordeak: berori, zerorrek... Posesiboak: beraren, berorren... edo elkarrizketa berbak: gizona, adiskidea, laguna...

b) Bertso bateko neurria anditu naiz txikertuteko, kendu-iminiko berbetatik aparte **atzizikiak** bere badaukoguz. Atzizkietan badagoz kendu eta iminikoak. Edo kendu edo iminita esaldiari aide andirik ezartzen ez dautsoezanak.

c) **Berba alkartuekaz** be bardin pasatzen da. Ganera euskeraren berezitasun andi bat dira eta asko laguntzen dabe bersoak egiteko orduan.

d) Badagoz berba batzuk desbardinak izan arren esangura bera daukienak. **Sinonimoak.** Esate baterako: maiz-sarri, sarritan- anitzetan...

e) Beste atal andi bat **laburdura (e) eta luzadurak**

(f) dira. Laburdurak batez bere. Esate baterako, Egin -genun... Seigarren atala elipsia da. Berba batzuk jan egiten dira. Bertsoetan milaka elipsi egiten da. Baina ez dago edozein berba jaterik.

g) Azkenengo diptongoak. Noiz da diptongoa eta noiz diptongo apurtua? Ondo neurtuteko oso bearrezkoa da ori.

Diptongoak bi bokaleko bikoteak dira: AI, OI, UA, EA... Euskeraz, IA, IE, IO, eta IU dira diptongo izateko uzkurrenak. Oneik beti dira diptongo apurtuak edo silaba bikotxak. Gastelaniaz edo erderaz "ocasión", edo "medio" diren artean, euskeraz o-ka-si-o edo me-di-o dira. Diptongoak apurtuta silaba bitan bananduta lotuten dira.

Bertsotan erderazko berbak ez direnez gitxi erabiltzen, onek arauak erabiltzea komenigarria da.

4— Baliteke beste maratila batzuk bere egotea. Baina neurriaren mekanismoak jotzeko, zazpi modu onekaz funtsezkoenak topatu doguz. Klabe onexei esker neurtzea posible da. Onexek emoten dabe ain arrigarria dan neurketa zeatzaren bidea.

BERTSOLARIEN

Urte batean geiagoetan
emen gagoz alkarturik
gure izkuntzaren edergarriak
biotzez entzun gurarik;
zuen gogoa, beti, ikusten dot
euskera aide pozturik,
oi zein eder dan anaitasuna
euskal itzez indarturik.
Gure arbaso agurgarriak
sortu eben izkuntzia
egiz da eder, egiz jakintsu
argitasun emoillia;
alan zirian gure aittittak
eta euren arnasia
onbide baten sortuaraziz
euskaldunen aberria.
Bertsolaria ta euskalduna
munduan apartekoa
Asier jaunak ba-dau ortako
doai berebizikoa;
ori Gaitikan dabil landuten
bertso eskola jokoa
gure izkuntzari on egin nairik
edertuz itzen giroa

PAULIN

